# Gizarte-babesaren kontua. Euskal AE

## Emaitzen analisia

# Cuenta de protección social. C.A. de Euskadi

## Análisis de resultados

Eustat

1999

**Lanketa** / Elaboración:

**Eustat**
**Euskal Estatistika Erakundea**
Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

**Argitaraldia /** Fecha: IV-2002

**Argitalpena** / Edición:

**Eustat**
**Euskal Estatistika Erakundea**
Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Internet:** www.eustat.es

© **Euskal AEko Administrazioa**
Administración de la C.A. de Euskadi

## ANÁLISIS DE RESULTADOS

En el año 1999 el gasto total consolidado en protección social ascendió a 7.320.157 miles de euros lo que supuso un incremento con respecto al ejercicio de 1997 de 10,7 puntos. Este incremento no evitó, sin embargo, una caída del gasto en protección social medido en porcentaje del PIB, desde un 21,4% a un 20,1%, retroceso que debe atribuirse al fuerte crecimiento de este agregado, un 18,2% en el mismo período.

En la composición del gasto total destacan las prestaciones sociales, es decir, las transferencias, tanto en efectivo como en especie, que los hogares perciben de las distintas instituciones de protección social, cuando tienen lugar las contingencias frente a las cuales se encuentran protegidos. Las prestaciones sociales ocuparon el 97,5% del gasto total consolidado y los gastos administrativos supusieron el 2,5% restante.

El análisis del gasto en protección social suele realizarse a partir de dos indicadores básicos, el gasto por habitante, intensidad, y el gasto como porcentaje del PIB, esfuerzo.

Con respecto al año 1997, las cantidades abonadas en concepto de protección social en la C.A. de Euskadi han aumentado en un 11,2%, lo cual ha permitido que el gasto por habitante se haya instalado en los 3.479 euros, frente a los 3.132 euros de 1997, y a los 2.856 euros de 1995. El nivel de esfuerzo se ha visto reducido paulatinamente desde el 22,3% de 1995, pasando por el 21,4% de 1997, hasta el 20,1% de 1999, como consecuencia del mayor ritmo de crecimiento del PIB.

## EMAITZEN ANALISIA

1999. urtean, gizarte-babeseko guztizko gastu bateratua 7.320.157 mila eurora iritsi zen; horrek esan nahi du gehikuntza, 1997ko ekitaldiaren aldean, 10,7 puntukoa izan zela. Gehikuntza horrek, dena dela, ez zuen eragotzi gizarte-babeseko gastua beheratzea: BPGaren ehunekotan, %21,4etik %20,1era jaitsi zen. Atzerapen hori agregatu horren hazkunde handiari egotzi behar zaio: %18,2 aldi horretan berean.

Guztizko gastuaren osaeran, gizarte-prestazioak nabarmentzen dira, hau da, etxeguneek gorabeherak gertatzen direnean, gizarte-babeseko erakunde guztietatik, dirutan zein aletan, jasotzen dituzten transferentziak; izan ere, gorabehera horien aurrean babestuta daude. Gizarte-prestazioek guztizko gastu bateratuaren %97,5 hartu zuten; administrazio-gastuek, berriz, gainerako %2,5a.

Gizarte-babeseko gastuaren analisia oinarrizko bi adierazleren arabera egin ohi da: biztanleko gastua, intentsitatea, eta gastua BPGaren ehuneko gisa, ahalegina.

1997. urtearen aldean, gizarte-babes izenburupean ordaindu diren kopuruak %11,2 igo dira Euskal AEn; igoera horri esker, biztanleko gastua 3.479 eurotan ezarri da, 1997ko 3.132 euroren eta 1995eko 2.856 euroren aldean. Ahalegin-maila, aldiz, pixkanaka murriztuz joan da, hasi 1995eko %22,3tik, 1997ko %21,4tik pasatuz, 1999ko %20,1eraino. Hori guztiori BPGaren hazkunde-erritmo handiagoaren ondorioz.

## 1. TAULA. GIZARTE-BABESAREN BILAKAERA EUSKAL AEn
## TABLA 1. EVOLUCIÓN DE LA PROTECCIÓN SOCIAL EN LA C.A. DE EUSKADI

| | 1995 | 1997 | 1999 | Δ 97/95 | Δ 99/97 |
|---|---|---|---|---|---|
| **GIZARTE BABESEKO GUZTIZKO GASTUAK (BATERATUA)**<br>GASTO TOTAL EN PROTECCIÓN SOCIAL (CONSOLIDADO) | | | | | |
| **Mila eurotan /** En miles de □ | 6.064.143 | 6.585.334 | 7.320.157 | 8,6 | 11,2 |
| **Biztanleko. □ /** Por habitante. □ | 2.856 | 3.132 | 3.479 | 10,1 | 10,6 |
| **BPGaren %tan /** En % del PIB | 22,3 | 21,4 | 20,1 | -3,9 | -6,3 |
| **GIZARTE PRESTAZIOAK**<br>PRESTACIONES SOCIALES | | | | | |
| **FUNTZIOKA**<br>POR FUNCIONES | | | | | |
| **GUZTIRA /** TOTAL | 5.899.647 | 6.408.381 | 7.137.692 | 8,6 | 11,4 |
| **Gaixotasuna/osasun-atentzioa /** Enfermedad/Atención sanitaria | 1.592.002 | 1.779.643 | 1.987.328 | 11,8 | 11,7 |
| **Elbarritasuna /** Invalidez | 449.149 | 577.477 | 644.356 | 28,6 | 11,6 |
| **Zahartzaroa /** Vejez | 2.525.331 | 2.810.458 | 3.155.207 | 11,3 | 12,3 |
| **Umezurtz-alargunak /** Supervivientes | 249.684 | 239.753 | 267.181 | -4,0 | 11,4 |
| **Familia/seme-alabak /** Familia/Hijos | 72.109 | 87.927 | 103.831 | 21,9 | 18,1 |
| **Langabezia* /** Desempleo* | 937.956 | 834.689 | 899.456 | -11,0 | 7,8 |
| **Etxebizitza /** Vivienda | 6.527 | 7.313 | 10.697 | 12,0 | 46,3 |
| **Gizarte-bazterkeria /** Exclusión social | 66.889 | 71.121 | 69.636 | 6,3 | -2,1 |
| **SISTEMA TALDEKA**<br>POR GRUPOS DE SISTEMAS | | | | | |
| **Gizarte Segurantzako sistematik /** Del Sistema de Seguridad Social | 4.155.508 | 4.738.314 | 5.237.188 | 14,0 | 10,5 |
| **INEMetik /** Del INEM | 623.826 | 548.736 | 537.192 | -12,0 | -2,1 |
| **Funtzionario publikoen erregimenetatik**<br>De Regímenes de Funcionarios Públicos | 185.615 | 188.262 | 198.970 | 1,4 | 5,7 |
| **Beste administrazio batzuetatik /** De Otras Administraciones | 934.698 | 933.069 | 1.164.342 | -0,2 | 24,8 |
| **ADIERAZLEAK. □**<br>INDICADORES. □ | | | | | |
| **Biztanleko /** Por habitante | 2.779 | 3.048 | 3.392 | 9,7 | 11,3 |
| **Langabezia* funtzioan, langabe erregistratuko**<br>En la función Desempleo* por parado registrado | 7.165 | 7.446 | 10.471 | 3,9 | 40,6 |
| **Langabezia funtzioan, BPGaren %tan**<br>En la función Desempleo en % del PIB | 3,5 | 2,7 | 2,5 | -21,5 | -8,8 |
| **Gaixotasuna/osasun-atentzioa funtzioan, biztanleko**<br>En la función Enfermedad/Atención sanitaria" por habitante | 750 | 847 | 945 | 12,9 | 11,6 |
| **Zahartzaroa funtzioan, 65 urtetik gorako pertsonako**<br>En la Función Vejez por persona mayor de 65 años | 8.083 | 8.402 | 8.990 | 3,9 | 7,0 |
| **Gizarte Segurantzaren sistematik, lan-altako afiliatuko**<br>Del Sistema de Seguridad Social por afiliado en alta laboral | 6.116 | 6.677 | 6.757 | 9,2 | 1,2 |
| **DATU EKONOMIKO OINARRIZKOAK**<br>DATOS ECONÓMICOS BÁSICOS | | | | | |
| **BPG mila eurotan**<br>PIB en miles de euros | 27.184.114 | 30.823.320 | 36.423.635 | 13,4 | 18,2 |
| **Biztanleko BPG eurotan**<br>PIB por habitante en euros | 12.804 | 14.662 | 17.311 | 14,5 | 18,1 |
| **Langabezia erregistratua. Urteko batez bestekoa**<br>Paro Registrado. Media anual | 131 | 112 | 86 | -14,4 | -23,4 |
| **Gizarte Segurantzako lan-altan afiliatuak, urteko batez bestekoa**<br>Afiliados a la Seguridad Social en alta laboral. Media anual | 680 | 710 | 775 | 4,4 | 9,2 |

**(*) INEMek langabetuen mesedetan Gizarte Segurantzari ordaintzen dizkion kotizazioak ere hartzen ditu; tauletan kotizazio birresletuen ataletan biltzen dira kotizazio horiek.**

(*) Inlcuye las cotizaciones a la Seguridad Social que efectúa el INEM en beneficio de los desempleados y que en las tablas se recogen en el apartado de Cotizaciones reasignadas.

Los resultados obtenidos para la C.A. de Euskadi de los indicadores básicos muestran algunas diferencias significativas en comparación con los del Estado. El gasto en protección social en la CAE alcanzó los 3.479 euros por habitante, superando en un 21% el valor del mismo indicador del conjunto estatal, 2.858 euros. En lo que se refiere al esfuerzo, el valor del gasto total en protección social se mantuvo en los mismos niveles que la media estatal en torno al 20,1% del PIB.

Oinarrizko adierazleetatik Euskal AEri buruz lortu diren emaitzak alde nabarmen batzuk erakusten dituzte, Estatukoekin alderatuta. EAEko gizarte-babeseko gastua biztanleko 3.479 eurora iritsi zen, eta %21ean gainditu du adierazle beraren balioa Estatuko multzoan, 2.858 euro. Ahaleginari dagokionez, gizarte-babeseko guztizko balioaren balioa, berriz, Estatuko batez bestekoaren maila beretan mantendu zen (hau da, BPGaren %20,1 inguruan).

Gasto en protección social por habitante en Europa, 1999. En unidades PPC — Gráfico 1 **Grafikoa** — **Gizarte-babeseko gastua biztanleko Europan, 1999. EAP unitatetan.**




**Iturria: Eurostat (2002): *Statistiques sociales européennes Protection sociale. 1980-1999*. Luxenburgo**
Fuente: Eurostat (2002): *Statistiques sociales européennes Protection sociale. 1980-1999*. Luxemburgo
**Oharra: datu horrek gizarte-babeseko guztizko datua adierazten du herrialde bakoitzari buruz, transferentzietako gastuak sartu gabe.**
Nota: El dato refleja para cada país el gasto total en protección social sin incluir los gastos en transferencias .

Las diferencias en cuanto a la intensidad del gasto en protección social –expresadas en unidades de PPC (paridad de poder de compra)– resultan considerables dentro la Unión Europea. Los datos de los quince miembros de la Unión revelaron que el país con mayor intensidad, Luxemburgo, gastaba dos veces más que el país con menor gasto por habitante, España. En este particular ranking la C.A. de Euskadi, con 4.158 unidades PPC en 1999, se sitúa por debajo de la media europea (5.793), superando a Grecia, Portugal, Irlanda y España pero lejos de los países europeos con mayor intensidad de gasto: Luxemburgo (8.479), Dinamarca (7.440), Noruega (7.367), Suecia (7.116) y Holanda (6.902).

Gizarte-babesteko gastuaren intentsitateari buruzko aldeak –EAP unitatetan adieraziak (eros ahalmenaren parekotasuna)– aipagarriak gertatzen dira Europar Batasunaren barruan. Batasuneko hamabost kideetako datuek erakusten dute intentsitate handieneko herrialdeak, Luxenburgok, biztanleko gastu gutxieneko herrialdeak, Espainiak, baino bi aldiz gehiago gastatzen zuela. Ranking berezi horretan, Euskal AE (4.158 EAP unitate 1999an), batez besteko europarraren azpitik dago (5.793), Grezia, Portugal, Irlanda eta Espainia gaindituz, baina urrun, gastu-intentsitate handieneko herrialde europarretatik: Luxenburgo (8.479), Danimarka (7.440), Norvegia (7.367), Suedia (7.116) eta Holanda (6.902).

Gráfico **2 Grafikoa**




**Iturria: Eurostat (2002): *Statistiques sociales européennes Protection sociale.1980-1999 Dépenses et recettes.* Luxenburgo**
Fuente: Eurostat (2002): *Statistiques sociales européennes Protection sociale. 1980-1999. Dépenses et recettes*. Luxemburgo

**Oharra: ardatz bertikalak gizarte-babeseko gastuaren bolumena biltzen du, transferentziak sartu gabe.**
Nota: El eje vertical recoge el volumen de gasto en protección social, sin incluir transferencias.

En el Gráfico 2 se aprecia la relación entre la renta per capita y la intensidad que alcanza la protección social en los distintos países europeos. A los países con menores niveles de renta les corresponden unos valores de intensidad más bajos, mientras que a los países más ricos les corresponde un gasto en protección social más alto por habitante. Irlanda constituye una excepción a esta norma general, con valores de intensidad apreciablemente inferiores a los de países con similares niveles de renta.

## DISTRIBUCIÓN TERRITORIAL DEL GASTO

La distribución del gasto en protección social por territorios no ha variado sustancialmente con respecto a períodos anteriores. El gasto se concentra en el territorio histórico de Bizkaia, donde la población es mayor, seguido por los territorios de Gipuzkoa y Araba. Como se observa en la Tabla 2, el reparto del gasto social se alinea de manera casi perfecta con la población, de manera que el gasto en prestaciones sociales por habitante resulta muy similar en los tres territorios vascos. La mayor intensidad es para los territorios de Bizkaia y Gipuzkoa con 3.425 euros. Araba, por su parte, presenta un valor de 3.248 euros en dicho indicador.

2. grafikoan antzematen da nolako erlazioa dagoen biztanleko errentaren eta herrialde europar bakoitzean gizarte-babesak lortzen duen intentsitatearen atean. Errenta-maila txikieneko herrialdeei, intentsitate-balio baxuago batzuk dagozkie; herrialde aberatsenei, berriz, biztanleko gizarte-babeseko gastu altuagoa dagokie. Irlanda arau orokor horren salbuespena da; izan ere, intentsitate-balio askoz ere txikiagoak dituzte, errenta-maila berdintsuko herrialdeen aldean.

## GASTUAREN BANAKETA HERRIALDEKA

Gizarte-babeseko gastuaren herrialdekako banaketa ez da modu nabarmenean aldatu, aurreko aldien aldean. Gastua Bizkaiko Herrialde Historikoan metatzen da, non biztanleria handiagoa baita, eta haren atzetik, Gipuzkoa eta Araba datoz. 2. taulan antzematen denez, gizarte--gastuaren banaketa ia modu perfektuan lerrokatzen da biztanleriarekin; hori dela eta, biztanleko gizarte-prestazioetako gastua oso berdintsua da hiru eusko herrialdeetan. Intentsitaterik handiena Bizkaiko eta Gipuzkoako herrialdeei dagokie, 3.425 eurorekin. Arabak, berriz, 3.248 euroko balioa erakusten du adierazle horretan.




Las diferencias entre los territorios vascos resultan, en cambio, más importantes en el capítulo del esfuerzo que exige para cada territorio el mantenimiento de los citados niveles de intensidad. Dado que Araba es el territorio con mayor PIB per cápita, el esfuerzo que ha de realizar es menor: un 15,3%, frente al 19,2% de Gipuzkoa, y al 21,3% de Bizkaia.

Eusko herrialdeen arteko aldeak, aldiz, handiagoak dira ahaleginaren atalean. Izan ere, ahaleginak intentsitate-maila batzuk mantentzea eskatzen du herrialde bakoitzari buruz. Araba biztanleko BPG handieneko herrialdea denez, egin behar duen ahalegina txikiagoa da; %15,3, Gipuzkoaren %19,2ren eta Bizkaiko %21,3ren aldean.

**2. TAULA. ADIERAZLEEN HERRIALDEKAKO BANAKETA**
TABLA 2. DISTRIBUCIÓN TERRITORIAL DE INDICADORES

| | **ARABA** ÁLAVA | **BIZKAIA** | **GIPUZKOA** | **EUSKAL AE** C.A. DE EUSKADI |
|---|---|---|---|---|
| **Biztaleria, % /** Población % | 13,6 | 54,1 | 32,3 | 100 |
| **BPG, %** / PIB % | 16,7 | 50,2 | 33,1 | 100 |
| **Gizarte-prestazioetako gastua / Herrialdeko BPG** Gasto en Prestaciones Sociales / PIB Territorial | 15,8 | 21,8 | 19,6 | 20,1 |
| **Gizarte-prestazioetako gastua %** Gasto en Prestaciones Sociales % | 13,0 | 54,5 | 32,5 | 100 |
| **Gizarte-prestazioetako gastua biztanleko eurotan** Gasto en Prestaciones Sociales por habitante en euros | 3.248 | 3.415 | 3.415 | 3.392 |

## DISTRIBUCIÓN FUNCIONAL DEL GASTO EN PRESTACIONES SOCIALES

La metodología SEEPROS clasifica el gasto en prestaciones sociales en función del riesgo o contingencia al que pretende hacer frente. Se distinguen ocho funciones, entre las que destacan por su peso las funciones Vejez, con el 44,2% del gasto en prestaciones sociales, y Enfermedad - atención sanitaria, con un 27,8%. Les sigue la función Desempleo que incluye las cotizaciones sociales reasignadas abonadas a favor de los desempleados, (12,6%) e Invalidez (9,0%). El resto de las funcio-

## GIZARTE PRESTAZIOETAKO GASTUAREN FUNTZIOKAKO BANAKETA

GBABESE metodologiak arriskuaren edo gorabeheraren arabera sailkatzen du gizarte-prestazioetako gastua, aurre egin nahi den arriskuaren edo gorabeheraren arabera, hain zuzen. Zortzi funtzio bereizten dira, eta, funtzio horien artean, duen pisuagatik, zahartzaroa (gizarte-prestazioetako gastuaren %44,2) eta gaixotasuna / osasun-atentzioa funtzioa (%27,8rekin) nabarmentzen dira. Haien atzetik daude langabezia funtzioa (%12,6), zeinak langabetuek ordaindutako gizarte-kotizazio berresleituak

nes dispone de un peso significativamente menor, los Supervivientes se llevan un 3,7%, la función Familia - hijos alcanza el 1,5%, los gastos dedicados a Exclusión social el 1,0%, y los que corresponden a la función Vivienda ascienden a un 0,1%.

hartzen baititu, eta elbarritasuna (9,0%). Gainerako funtzioek pisu nabarmen txikiagoa daukate: umezurtz-alargunek %3,7 hartzen dute; familia/seme-alabak funtzioa %1,5era iristen da; gizarte-bazterkeriara bideratutako gastuak, %1,0ra, eta etxebizitza funtzioari dagozkionak %0,1era iristen dira.

Distribución funcional de las prestaciones sociales Gráfico 4 **Grafikoa Gizarte-prestazioetako funtziokako banaketa**




Esta estructura funcional del gasto, representada en el Gráfico 4, no ha variado sustancialmente con respecto a la resultante en 1997. Es interesante considerar, sin embargo, cuáles son las funciones que más han contribuido al crecimiento del gasto en prestaciones sociales entre los años 1995 y 1999. Éstas son precisamente las dos funciones con presencia más importante en el volumen global de gasto: Vejez y Enfermedad-atención sanitaria. Las prestaciones en la función Vejez en 1999 sumaron casi 630 millones de euros más que en 1995 y tuvieron que atender una demanda potencial, las personas de 65 años o más, que creció a un ritmo más alto que el del conjunto de la población, (suponiendo un 16,7% de la población frente al 14,7%). Por su parte, la función Enfermedad - atención sanitaria ocupó, en 1999, 395 millones de euros más que en 1995, y 207 más que en 1997.

El dinamismo de estas dos funciones puede explicar un 82,8% del crecimiento del gasto corriente en prestaciones sociales durante el período 1995-1999, un 50,9% en el caso de la función Vejez y un 31,9% la función Enfermedad - atención sanitaria. En el resto de las funciones la contribución resulta mucho más modesta, y en el caso, de la función Desempleo, incluso negativa. No obstante, el indicador de intensidad particular de esta función –definido como el gasto en la función incluidas las cotizaciones sociales reasignadas entre número de parados registrados en el INEM– no se resintió, al reducirse considerablemente el número de trabajadores en situación de desempleo. El número de desempleados registrados en las oficinas de empleo, bajó de 131 miles de parados en 1995 a menos de 86 miles en 1999.

Gastuaren funtziokako egitura hori, 4. grafikoan irudikatua, ez da funtsean aldatu,1997an atera zenaren aldean. Interesgarria da, dena dela, kontuan izatea zein funtzioek ekarri dioten gehien gizarte-prestazioetako gastuaren hazkundeari 1995 eta 1997. urteen artean. Funtzio bi hauek dira, hain zuzen, gastuaren bolumen orokorrean presentzia handiena dutenak: zahartzaroa eta gaixotasuna / osasun-atentzioa funtzioko prestazioek 1995ean baino ia 630 milioi euro gehiago batu zituzten 1999an, eta eskari potentzial handiago bati erantzun behar zioten, 65 urte edo gehiagoko pertsonei. Eskari potentzial hori biztanleriaren multzoa baino erritmo biziagoan hazi zen (%16,7, %14,7ren aldean). Gaixotasuna / osasun-atentzioa fun-tzioak, 1999an, 1995ean baino 395 euro gehiago eta 1997an baino 207 gehiago hartu zituen.

Bi funtzio horien dinamismoak azal dezake 1995-1999 aldian gizarte-prestazioetako gastu arruntaren hazkundearen %82,8: zahartzaroa funtzioaren kasuan %50,9, eta gaixotasuna / osasun-atentzioa funtzioak %31,9. Gainerako funtzioetan, ekarpena askoz ere apalagoa da, eta, langabezia funtzioaren kasuan, are negatiboa ere. Hala ere, funtzio horren intentsitate bereziaren adierazlea –hau da, funtzioko gastua, gizarte-kotizazio berresleituak barne, zati INEMen erregistratutako langileen kopurua– ez da ahuldu, langabezia-egoeran dauden langileen kopurua nabarmen murriztu baita. Izan ere, enplegu-bulegoetan erregistratutako langabeen kopurua nabarmen jaitsi zen: 1995eko 131 mila langabetik 1999ko 86 milara jaitsi zen.

Esta evolución en el período 1995-1999 se ve confirmada por lo ocurrido entre los años 1997 y 1999, con ligeros matices. En este último período se mantiene la hegemonía de las funciones Vejez y Enfermedad - atención sanitaria, que vuelven a ser, por ese orden, las que en mayor medida contribuyen al crecimiento de las prestaciones sociales. Sin embargo, la contribución del Desempleo resulta, en este caso, positiva, observando una reducción en el gasto en subsidios a los desempleados, como en el período anterior (1995-1997), que ha sido contrarestada por el incremento del gasto relacionado con la Formación profesional, que ha crecido de forma significativa, las jubilaciones anticipadas por razones del mercado laboral y las indemnizaciones por despidos.

1995-1999 aldiko bilakaera hori berretsita geratu da 1997 eta 1999. urteen artean gertatutakoarekin, ñabardura gutxi batzuekin. Azken aldi horretan ez da aldatu zahartzaroa eta gaixotasuna / osasun-atentzioa funtzioen nagusitasuna. Funtzio horiek dira berriro, ordena horretan, gizarte-prestazioen hazkundeari ekarpen handiena egiten diotenak. Dena dela, langabeziaren ekarpena, kasu horretan, positiboa da, eta ikusi da murriztu egin dela langabeentzako laguntzen gastua, aurreko aldian bezala (1995-1997). Ekarpen horiek, bestalde, gainditu egin du lanbide-heziketarekin erlazionatutako gastuaren gehikuntza, zeina modu nabarmenean igo baita, lan-merkatuak eragindako erretiro aurreratuak eta iraizpenengatiko kalte-ordainak.

**3. TAULA. GIZARTE-PRESTAZIOEN GUZTIZKO BALIOAREN HAZKUNDEARI EGINDAKO EKARPENA %**
TABLA 3. CONTRIBUCIÓN AL CRECIMIENTO DEL VALOR TOTAL DE LAS PRESTACIONES SOCIALES. %

| | 1995 - 1999 | 1997 - 1999 |
|---|---|---|
| **Gaixotasuna/osasun-atentzioa /** Enfermedad/Atención sanitaria | 31,9 | 28,5 |
| **Elbarritasuna /** Invalidez | 15,8 | 9,2 |
| **Zahartzaroa /** Vejez | 50,9 | 47,3 |
| **Umezurtz-alargunak /** Supervivientes | 1,4 | 3,8 |
| **Familia/seme-alabak /** Familia/Hijos | 2,6 | 2,2 |
| **Langabezia* /** Desempleo* | -3,1 | 8,9 |
| **Etxebizitza /** Vivienda | 0,3 | 0,5 |
| **Gizarte-bazterkeria /** Exclusión social | 0,2 | -0,2 |
| **GIZARTE-PRESTAZIOAK GUZTIRA** TOTAL PRESTACIONES SOCIALES | 100,0 | 100,0 |

* **INEMek langabetuen mesedetan Gizarte Segurantzari ordaintzen dizkion kotizazioak ere hartzen ditu; tauletan kotizazio berresleituen ataletan biltzen dira kotizazio horiek.**
Incluye las cotizaciones a la Seguridad Social que efectúa el INEM en beneficio de los desempleados y que en las tablas se recogen en el apartado de Cotizaciones reasignadas.

Funciones por naturaleza — Gráfico **5 Grafikoa** — **Funtzioak izaeraka**



## DISTRIBUCIÓN DEL GASTO POR SISTEMAS DE PROTECCIÓN SOCIAL

## GASTUAREN BANAKETA GIZARTE BABESEKO SISTEMAKA

Distribución del gasto en prestaciones sociales por sistemas de protección social Gráfico 6 Grafikoa **Gizarte-prestazioetako gastuaren banaketa gizarte-banaketako sistemaka**




La distribución del gasto en prestaciones sociales por grupos de sistemas mantiene los rasgos de ejercicios anteriores. El predominio de las instituciones públicas en la gestión de las prestaciones sociales constituye un rasgo característico del Sistema Español y Vasco de protección social. En éste último, el Sistema de Seguridad Social - que agrupa las acciones de las entidades gestoras de la Seguridad Social, Instituto Nacional de la Seguridad Social (INSS), Instituto Social de la Marina (ISM), Tesorería General de la Seguridad Social (TGSS), el agregado de las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Laborales, y, finalmente, las prestaciones abonadas por las Administraciones Públicas Vascas como resultado de las transferencias en materia de sanidad y servicios sociales - se ocupa de la gestión de prestaciones por un importe de 5.237.188 miles de euros, un 73,4% del total. Si se añade a esta cifra el gasto en prestaciones ejecutado por el Instituto Nacional de Empleo (INEM), concentrado en la función Desempleo, y que en 1999 ascendió a 537.192 miles de euros, este porcentaje se eleva hasta el 80,9% de los recursos totales destinados a abonar prestaciones sociales a los beneficiarios de los distintos sistemas de protección social en la C.A. de Euskadi.

A estos dos grandes grupos de sistemas hay que añadir el de Regímenes de Funcionarios Públicos y el que recoge el resto de los Sistemas de Protección Social. El primero incluye las dos vías básicas de seguridad social para los funcionarios públicos, es decir, las pensiones de clases pasivas y las prestaciones del mutualismo administrativo, junto con las prestaciones sociales que los distintos niveles de las administraciones públicas en el terri-

Gizarte prestazioetako gastuaren sistema-taldekako banaketak, oro har, aurreko ekitaldietako ezaugarriei eusten die. Erakunde publikoen nagusitasuna gizarte-prestazioetako kudeaketan: horixe da gizarte-babeseko espainiar eta euskal sistemaren ezaugarri behinena. Azken horretan, Gizarte Segurantzako sistema arduratzen da prestazio gehienen kudeaketaz, 5.237.188 mila euro %73,4 guztira. Sistema horrek Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak biltzen ditu: Gizarte Segurantzaren Espainiako Erakundea (INSS), Itsasoko Gizarte Institutua (IGI), Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia (GSDN), Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutuen agregatua, eta, azkenik, osasun eta gizarte-zerbitzuen arloko transferentzien ondorioz euskal herri-administrazioek ordaintzen dituzten prestazioak. Zifra horri, Espainiako Enplegu Institutu Nazionalak (INEMek) burututako prestazioetako gastua gehitzen bazaio, zeina langabezia funtzioan metatzen baita (1999an 537.192 mila eurora iritsi zen zifra hori), ehuneko hori gizarte-prestazioak ordaintzera bideratutako guztizko balioen %80,9raino iristen da. Gizarte-prestazio horiek, hain zuzen, Euskal AEko gizarte-babeseko sistema guztietako onuradun guztiei ematen zaizkie.

Bi sistema-talde nagusi horiei, funtzionario publikoen erregimenarena eta gizarte-babeseko gainerako sistemak biltzen dituena gehitu behar zaie. Lehenak funtzionario publikoentzako gizarte-segurantzaren bi bide oinarrizkoak hartzen ditu, hau da, klase pasiboen pentsioak eta administrazioko mutualismoen prestazioak, bai eta Euskal AEren lurraldeko herri-administrazioen maila bakoitzak zuzenean bere enplegatuen mesedetan

torio de la C.A. de Euskadi abonan directamente en favor de sus empleados. Este grupo de sistemas gestionó, en 1999, el 2,8% de las prestaciones sociales, es decir, 198.970 miles de euros.

Por último, el grupo de los Otros Sistemas de Protección Social contiene una amalgama de acciones de instituciones tanto públicas como privadas entre las que destacan, por su cuantía, los gastos directos de las empresas junto con el aseguramiento colectivo de los trabajadores en entidades de seguro de diverso signo, entre las cuales ocupan un lugar destacado las Entidades de Previsión Social Voluntaria (EPSV) que, como se describe en el capítulo de Metodología y definiciones, han sido incorporadas en esta edición de la Cuenta de Protección Social de la C.A. de Euskadi1999. Las instituciones que se inscriben en este grupo de sistemas de protección social abonaron a los ciudadanos de la C.A. de Euskadi un total de 1.164.342 miles de euros (16,3%) en prestaciones sociales.

ordaintzen dituen gizarte-prestazioak ere. Sistema-talde horrek, 1999an, gizarte-prestazioen %2,8 kudeatu zuen, hau da, 198.970 mila euro.

Gizarte-babeseko beste sistema batzuk taldeak, azkenik, erakunde publiko zein pribatuen multzo bat biltzen du; erakunde horien artean, duten zenbatekoagatik, enpresen gastu zuzenekoak nabarmentzen dira, bai eta langileen aseguramendu kolektiboa ere zeinu askotako aseguru entitateetan. Entitate horien artean, toki nabarmena betetzen dute Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek (BGAE), zeinak, Metodologia eta Definizioak atalean azaltzen denez, erantsi egin baitira Euskal AEko Gizarte Babesaren 1999ko Kontuaren argitaraldi honetan. Gizarte-babesteko sistema-talde horri atxikitzen zaizkion erakundeek, guztira, 1.164.342 mila euro (%16,3) ordaindu zizkieten Euskal AEko herritarrei gizarte-prestazioetan.

Gasto de los grupos de sistemas de protección social por funciones — Gráfico 7 **Grafikoa** — **Gizarte-babeseko sistema-taldeen gastua funtzioka**




La distribución funcional y por tipos de las prestaciones gestionadas por los cuatro grupos de sistemas constituye un dato estructural que sufre escasas variaciones en períodos de tiempo cortos como el que es objeto de este análisis. Dicha estructura funcional, que se describe en el Gráfico 7, muestra una relativa diversidad en las contingencias que cubren los grupos de sistemas y en las formas que adoptan las prestaciones que realizan. Así, el Sistema de Seguridad Social, incluyendo el INEM, se centra en una serie de situaciones a las que históricamente ha rendido especial atención, la vejez y la pérdida de ingresos que ésta conlleva; la enfermedad y los gastos en servicios médico - sanitarios que implica; el desempleo; y la muerte de los miembros que constituyen la principal fuente de los ingresos familiares. Las prestaciones económicas orientadas a solventar las anteriores

Lau sistema-taldeek kudeatutako prestazioen funtzioka eta motakako banaketa, bestalde, egiturazko datua da, eta gorabehera gutxi jasaten ditu analisi honen gai dena bezalako denboraldi laburretan. Funtziokako egitura horrek (zeina 7. grafikoan azaltzen baita) nolabaiteko aniztasuna erakusten du sistema-taldeek estaltzen dituzten gorabeheretan eta egiten dituzten prestazioek hartzen dituzten moduetan. Izan ere, Gizarte Segurantzako sistema, INEM barne dela, historikoki arreta berezia bereganatu duten egoera batzuetan zentratzen da: zahartzaroa eta horrek dakarren sarrera-galtzea; gaixotasuna eta horrek dakartzan gastuak (zerbitzu mediko-sanitarioak); langabezia, eta familia-sarreren iturri nagusia diren familia-kideen heriotza. Aurreko gorabehera horiek arintzera bideratutako diru-prestazioek osatzen dute –osasun-asistentziaren horniketa zuzenekoarekin eta,

contingencias, junto con la provisión directa de asistencia sanitaria y, en menor medida, la formación profesional, constituyen la práctica totalidad de las prestaciones en los tres primeros grupos de sistemas. Los Otros sistemas de protección social, en cambio, presentan una mayor variedad de funciones y tipos de prestaciones y su cobertura incluye situaciones no protegidas por los sistemas tradicionales de Seguridad Social, además de suponer, en otros casos, una cobertura complementaria con respecto a la prestada por estos últimos.

neurri txikiago batean, lanbide-heziketarekin batera– prestazioen ia multzo osoa lehenengo hiru sistema-taldeetan. Gizarte-babeseko beste sistema batzuk taldeak, aldiz, funtzio-aldaera eta prestazio-mota gehiago dauzka, eta talde horren estaldurak Gizarte Segurantzako sistema tradizionalek babesten ez dituzten hainbat egoera hartzen ditu; gainera, beste kasu batzuetan, estaldura osagarria izaten da, beste sistemek eskaintzen dutenaren aldean.

Gasto de los grupos de sistemas según su naturaleza Gráfico **8** **Grafikoa** **Sistema-taldeen gastua, izaeraren arabera**




## LOS INGRESOS DE LOS SISTEMAS DE PROTECCIÓN SOCIAL

Los Sistemas de protección social obtuvieron en 1999 unos ingresos totales de 7.517.672 miles de euros, con los que financiaron sus gastos de protección social. La mayor parte de estos ingresos, 5.510.303 miles de euros, un 73,3%, provino de las cotizaciones, de las cuales, la mayor parte, 3.967.261 miles de euros, fueron abonadas por los empleadores. La segunda fuente más importante de fondos fue la de las Aportaciones públicas que, con 1.859.664 miles de euros, representó un 24,7% del total.

Si bien el mencionado carácter contributivo es común al conjunto de las agrupaciones de sistemas en la C.A. de Euskadi, existen sensibles diferencias en los modelos de financiación que adoptan éstas. El Sistema de Seguridad Social, el Instituto Nacional de Empleo y los Regímenes de funcionarios públicos se financian fundamentalmente con cargo a las Cotizaciones efectivas abonadas por empleadores y trabajadores. El papel de las Aportaciones públicas se circunscribe a la financiación de algunos servicios universales y de las prestaciones dinerarias de aquellas personas que no cotizaron lo suficiente para garantizarse niveles de renta mínimos. En el último de estos regímenes, Regímenes de funcionarios públicos,

## GIZARTE BABESEKO SISTEMEN SARRERAK

Gizarte-babeseko sistemek, guztira, 7.517.672 mila euroren sarrerak lortu zituzten 1999an; sarrera horien bidez, gizarte-babeseko beren gastuak finantzatu zituzten. Sarrera horietatik, zatirik handiena, 5.510.303 mila euro, %73,3, kotizazioetatik etorri zen, eta horietatik, zatirik handiena, 3.967.261 mila euro, enplegatzaileek ordaindu zituzten. Funtsen bigarren zatirik garrantzitsuena herri-administrazioen ekarpenena izan zen; atal horrek 1.859.664 mila eurorekin, guztizkoaren %24,7 hartu zuen.

Nahiz eta Euskal AEko sistema-taldekatzeen multzoan izaera kontribuziozko hori komuna den, alde nabarmenak daude talde horiek hartzen dituzten finantzaketa-ereduetan. Gizarte Segurantzaren sistema, Espainiako Enplegu Institutu Nazionala eta funtzionario publikoen erregimenak nagusiki enplegatzaileek eta langileek ordaintzen dituzten kotizazio egiazkoen kontura finantzatzen dira. Herri-administrazioen ekarpenen papera zerbitzu unibertsal batzuen eta errenta-maila gutxienekoak ziurtatzeko adina kotizatu ez zuten pertsonen diru-prestazioak finantzatzera mugatzen dira. Erregimen horietatiko azkenean, funtzionario publikoen erregimenetan, herri-administrazioek enplegatzaile gisa jokatzen dute; arrazoi hori dela

Ingresos de los Sistemas de Protección Social por tipos — Gráfico 9 Grafikoa — **Gizarte-babeseko sistema-taldeen sarrerak motaka**




las administraciones públicas actúan como empleadoras, razón por la que sus aportaciones se consideran mayoritariamente cotizaciones sociales de los empleadores. El grupo de los Otros sistemas difiere considerablemente de este patrón, tanto por el peso que adquieren las formas no habituales de ingreso, que suponen el 10,5% del ingreso, como por la naturaleza de las Cotizaciones sociales que, en su mayoría, 56,1%, son cotizaciones imputadas a los empleadores, en virtud de las prestaciones que éstos realizan directamente a favor de sus empleados.

eta, gehienak enplegatzaileen gizarte-kotizazioak kontsideratzen dira. Beste sistema batzuk taldea nabarmen urruntzen da eremu horretatik, dela sarrera-bide ez-ohikoek hartzen duten pisuagatik (sarreren % 10,5 hartzen dute), dela gizarte-kotizazioen izaeragatik, zeinak, gehienak, %56,1, enplegatzaileei egotzitako kotizazioak dira, haiek zuzenean beren enplegatzaileen mesedetan egiten dituzten prestazioen arabera.

Ingresos de los grupos de sistemas de protección social por tipos — Gráfico 10 Grafikoa — **Gizarte-babeseko sistema-taldeen sarrerak motaka**



De acuerdo con estos datos la C.A. de Euskadi se sitúa entre el grupo de países cuyos sistemas de protección social adoptan un carácter preferentemente contributivo, como Alemania, Bélgica, Francia o Austria. En el otro extremo se encuentran aquellos países en los que la contribución mayoritaria en el sostenimiento de los *sistemas de protección social* corresponde las *aportaciones públicas*, como ocurre en Dinamarca donde esta fuente de ingreso supone el 65,2% de los recursos,  e Irlanda y Noruega con  un 59,8%.

Datu horien arabera, Euskal AE herrialde-talde kontribuziozkoen artean kokatzen da, gizarte-babeseko sistemak izaera nagusiki kontribuziozkoa duenen artean, hala nola Alemania, Belgika, Frantzia edo Austria. Beste muturrean daude ekarpen publikoko herrialdeak, hau da, *gizarte--babeseko sistemen* sostenguan egiten den ekarpen nagusia *herri-administrazioen ekarpenei* dagokie; horixe gertatzen da Danimarkan, non sarrera-iturri horrek baliabideen %65,2 hartzen baitu, eta Irlandan eta Norvegian (%59,8).

Fuentes de ingreso de los sistemas de protección social — Gráfico **11** **Grafikoa** — **Gizarte-babeseko sistemen sarreren iturriak**




**Iturria: Eurostat (2002): *Statistiques sociales européennes Protection sociale. 1980-1999*. Luxenburgo**
Fuente: Eurostat (2002): *Statistiques sociales européennes Protection sociale. 1980-1999*. Luxemburgo
**Oharra: datu horrek gizarte-babeseko guztizko datua adierazten du herrialde bakoitzari buruz, transferentzietako gastuak sartu gabe.**
Nota: El dato refleja para cada país el gasto total en protección social sin incluir los gastos en transferencias .

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

www.eustat.eus